



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure proiektuan, bezeroekin edukiko nahi ditugun harremanak era ezberdinetakoak dira, alde batetik fisikoak eta bestalde, online zerbitzua.

Bezeroekiko harreman fisikoa egoteko aukera eskainiko dugu, batez ere, gure gehienezko bezeroak pertsona helduak izango direlako. Egokia izango litzateke hau, zeren eta pertsona helduek ez baitute hain ondo kontrolatzen horrelako teknologia aurreratuak, eta hauek nahiago dute fisikoki egon harremanetan. Lokala edukiko dugu harreman fisiko hau posible izan dadin, eta era honetan publiko guztiek edukiko dute aukera erosteko gure produktuak. Lokal honetan, produkzio atala eta bezeroekiko harremanerako atala batera edukiko ditugu.

Bestalde, autozerbitzua eskainiko diegu gure bezeroei. Hau gure webgunearen bidez izango da posible, hau da, teknologiaren bitartez. Webgune hontan online bidez erosteko aukera edukiko du erostea nahi duen edozein pertsonak. Ez da egongo beste pertsonarik bezero hauei erantzuten diena, hau da, zerbitzua automatizatua izango da eta bezeroa berak bakarrik erosketa egiteko ahalmena izango du, inolako arazorik gabe.

Bi aukera hauek eskuragarri jarriz, erosteko orduan gure bezeroen erosotasuna bermatuko dugu, inor geratu ez dadin gure produktuak lortu barik ez dagoelako hortarako eskuragarritasunik. Gure bezeroak erabaki ahalko dute online bidez edo fisikoki erostea produktua.